

Run to Fest jaialdia Lemoako Gaztetxean hilaren 2an

13. orrialdea

Eguraldiak ez deitso aukerarik emon Alex Txikoneri

Zezeilaren 24ko Everest-aren tontorra egiteko saiakerea bertan behera itxi behar izan dau Txikonek haizeak ezinezkoa egin ebalako aurrera egitea. Neguan eta oxigeno artifizial barik Everest-era igoteko bigarren saiakerea izan da hau. 11. orrialdea



Onditz Iturbe eta Iraia Garcia BM Bilbaoko atletai alkarrizketea

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

291

2018ko martiaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Andrak grebara deitu dabez martiaren 8an

Euskal Herriko Mobimentu Feministek martiaren 8an planto egitera deitu dauz andrak. Lan greba, konsumo greba, zaintza greba eta ikasle greba izango da.

Arratian, Igorreko Kultur Etxe ondoan elkarretaratze zaratatsua egingo dabe 12:00etan eta Arratiako talde feministak eta andra taldeak arrastian Bilboko mobilizazioetan parte hartera konbidatzen dabez Arratiako andrak.

Martiaren 8aren inguruko hamabostaldian zehar ekintza ugari egongo dira herrietan: antzerkia, bertsoak, dokumentalak, erakusketak... Tartean, Zeanuriko andren gerra denporako testigantzak jasotzen dauzan dokumentalaren aurkezpena. Dokumentalaren egileak be zeanurizarrak dira eta herriko andra

alkartearen laguntza izan dabe.

Arratiako Andren VIII. Mendi Martxea hilaren 4an izango da.

Talde feminista barria be sortu da Arratian, Orratzak izenekoa eta martiaren 2an izango da aurkezpena Igorren. Orratzak taldeaz gainera, Arantzazuko Zabalik Emakume Elkartek, Arteako Emakume Taldeak, Dimako Andraizeak, Igorreko Nokak, Zeanuriko Mazala Emakume Taldeak, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Arloak eta Udalak prestatu dabez alkarlanean ekintzak. 8. eta 9. orrialdeak



AREATZA

Areatzako aurrekontuak onartu dira

EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontraokaz onartu dira 2018ko udal kontuak. Bertan, udal eraikinak berrantolatzeko partidak dagoz. Udaletxean bulegoak lehenengo solairura eroango dabez eta Gazteleku, liburutegi eta kultur esparru barriak sortuko dira. Alde zaharrari bultzadea emon gura deitso Udalak eta horretarako hainbat ekimen aurreikusten dira. Turismoarako, bizikidetza plan bat egiteko eta parte hartzea bultzatzeko be dirua dago. 5. orrialdea



DIMA

UEMA Eguna Diman ospatuko da

Maiatzaren 26an izango da eta antolaketaari ekiteko lehenengo batzarra zezeilaren 20an izan zan. Alkatea, UEMAko ordezkariak eta Dimako alkarteetako odeskariak egon ziran, egitaraua prestatzen hasteko. Herriko alkarte guztiak hartuko dabe parte egun horretarako egitaraua prestatuten.

Udaleri Euskaldunen Egunean UEMAK batzar nagusia be egiten dau eta bertan bere organu gorena aukeratuten dau. Hau da, UEMAko kide diran 85 herriak euren ordezkariak hautatuko dabe Diman. 7. orrialdea



IGORRE

Maiatzaren 6an herri konsultea egiteko martxan dagoz Igorren

Gure Esku Dago herri ekimenaren barruan, Igorren Ebatzi alkarteak 500 sinadura jaso dauz herri konsultea egiteko prozesuari ekiteko. Igorretzarrak Euskal Herriko estatus politikoaren gainean botoa emoten animetako montaje bat egingo dabe jentek bialdutako bideoakaz. Martiaren 2an tonbolea egongo da prozesua aurrera aterateko dirua batzeako eta apirilaren 22an zinegotzien babes ekitaldia izango da. 7. orrialdea

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA KOLOREETAN

ETORKIZUN MOREA SUKALDATZEN

"Sukaldean lobarentzako bazkaria prestatu barri dau. Umea altzoan hartu eta gozotasun osoz, ea eguna zer moduz joan dan eta eskolan andereñoagaz zer ikasi dauan galdetu deutso. Bazkaltzen amaitu, mahaia jaso eta ama etxera heldu da lanetik, prisaka. Umea hartu eta musika klasera eroan dau eskutik hartuta amak. Bitartean, etxean geratu da, eskuak amantalean garbitu eta umearentzako jertse barri bat josten".

Ohikoena gure amamez oroitzea izaten da holango pasarte bat entzutean. Gaur egungo


gizartean, urteetako rolaren ondorioz, oindino be zaintza lana batez be androk egiten dogun ezkutuko lana da-eta. Ezkutuko lana baina ezinbestekoa, eta guztiok egin beharko geunkena.

Oin arte androk bigarren plano baten egon garan arren, hasi gara astiro-astiro aurrerapausuak emon eta bigarren planoari plan to egiten. Dana dala, oindino be badaukagu zer landu eta konpondu gure gizarte honetan. Ez da kasualidadea, Zaztaparrak Asti Taldean bertan edota hezkuntzan gizonetakoak gitxiengo izatea,

martian izango dan greba feminista egiteko zailtasunak eraginez.

Askotan errepikatu dogu, gaurkoak garala biharkoen eredu, eta beraz, oingo umei bihar gura dogun jendarterako ereduak eskeini behar deutseguz. Etxean, kalean, eskolan, parkean, telebistan... Eta horretan gabilz. Martian balkoietan eskegiko diran amamaren, amaren, arrebearen, izekoaren amantala danok jantzi eta segidu daigun etorkizun more bat sukaldatzen.

Zaztaparrak Asti Taldea



Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zezeilaren 26tik martiaren 4ra
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara
Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 5etik 11ra
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 12tik 18ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 38 50 14
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15
Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01
Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51
Gorbeialde Irratia
94 631 52 90
Euskotren 902 543 210
Areatzako Notarioritza
94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan:
Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
* Basauriraino (Ariz) heltzean da.
Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.
Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.
* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.
Basauritik (Ariz): 12:45.
* Igorreko Instituturaino heltzean dira.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga
Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri
Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Illart Gumuzio.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodríguez eta Rut Rodríguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernández eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Iraganak etorkizuna erakusten dauanean

Bitxia egungo gizartea: Bilboko kaleak futbolaren aterkipean kolore batzuen defentsaren atxakiagaz testosteronaz betetako gizonen jokaera zakarrena agerian ixten dauan egun berean, gure nagusiak, Bartzelona edo Madril moduko uri handietan baino hiru aldiz jente gehiago batzea lortu dabe Bizkaiko uriburuan, Estaduko gobernuak pensioen inguruan daukan jokaera nazkagarria salatuteko... Teleberriak, prensak edota lagunen WhatsApp taldeak oster, futbolaren notiziaren harira iluntasunera bota badabez be nagusien aldarikapenak.

Egun daukaguzan eskubideen buruan bizi guztia zutunik emon daben nagusiak barriro be gure eredu dirala argi itxi dabe mobilizazio honeguz. Guretzat eta gugaitik dana emon dabenak, pensioen inguruan bakar dade lotsagarrienean urten dira kalera.

Oin aste batzuk, batzar informal baten Aldundiko goi kargu batek, jubiladu batzuei, pensioen inguruko aldarikapenak, euren kolektiboaren estigmatizazioa baino ez dakarrela aitatu eutsen... diruagaitik baino ez dirala mobiduten aitatu. Kezkagarria, gure nagusiak daukiezan pensioakaz bizimodu duin bat eroateko kapazak izatea, txapela kentzeako moduko eguneroko ekintza dala deritxat nik oster, eta pensioen sistema publikoa aldari eta beronen defensas jardutea, etekin propioetatik harago

doan burruka eskuzabalaren islada, estigma eta estereotipoetatik kanpo doana. Sarritan pentsau dot guda eta batez be guda oster eta frankismoan hezi, hazi eta bizi izanak sortutako inprontaren adierazlea ete dan gizarteagaz daukien konpromiso maila hori, egunerokotasunean lokartuta daukagun gazte eta helduen kontzientziak astinduteko kapaza dana.

Urteen katean albora eta behera begiratzerakoan inmoibilismoaren olatuak lotsa sortu arazoten dauan garai honeetan, gorantza begiratzetan miresmena sentidu arazoten daualako... Biba zuek!!

ITXASO BONGOETXEA

Arantzazutik Igorrerako bidean 2018an argiak ipintearen alde

EAJ-PNVk 2018ko Arantzazuko aurrekontuen kontrako botoa emon eban. Gure ustez aurrekontuak udal txekuek paralizatu bat erakusten dabe, lehentasunik barik eta ez dituanak ez proiektuak ez aurrekontuak aztertzen.

Inbersino kapituluaren Arantzazutik Institutura doan bidearen tarte bat egokitzeko erabiliko da, bizikletak eta oinezkoak konpartiduko dabena. Baina argirik ipini barik, eta bide horretan, tarte batzuetan, ilun dago. Argiteria segurtasun elementua da eta hori barik, obreak ez dau beteko urigintzako

planen genero ikuspegia. Alkateak esan eban urbanizazioari argiteria ipiniko jakola bai, baina 2019an.

Horrek esan gura dau aurten obra bat egingo dala, datorren urtean barriro apurtuteko. Pasa dan abenduan bide hori asfaltatu zan, 17.569 euroko kostuagaz. Ze planifikazio da hau?

Urbanizazio honen kostea argiteria eta guzti 74.000 euro ingurukoa da. EAJ-PNVrentzat argiteriak lehentasuna dauka segurtasuna eta efizientziagaitik, eta dirua egon badago.

Aurtengo aurrekontuan 20.000 euro gehiago daukaguz gastetako. Ikusita diru hau partidetatik zehar bananduta dagoala hurrengo proposamenak egin genduzan. Alde batetik, inbersinoetako kapituluaren dagozan efizientzia energetikorako 3.000 euroak, espaloiak konponduteko 7.000 euroak eta uri-hornigarietako 5.000 euroak, Arantzazu-Igorre urbanizatorako partidara pasetea. Eta beste alde batetik aztertu genduzan 2017ko aurrekontuetako partidetan zenbat diru gastatu zan. Partida batzuetan dirua sobra zan. 2017an gastatu zana, eta arean gehiago ixita be, 15.000 eurotako kantidadea pasau eitekean urbanizazio partidara. Holan, 54.000 euro egongo litzateke. Aldundiaren subentzinoagaz obra hori ez elango arazo barik egin eitekean.

ARANTZAZUKO EAJ-PNV

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar heritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



PILI ÁLVAREZ MOLÉS
NOKAko kidea

Eta ez banaiz berriz depilatzen, zer?

Inoz egin deusazue zeuen buruari galdera hau? Inoz egin dozue aprobea? Ausartuko zinateke, nahiz eta epe motz baterako izan? Batzuei galdera hau tontakeria irudituko jakie baina niri ez. Egin aprobea eta fijo besopera edo hanketara begiradak nabaritu dozuzala; komentarioak zuzenean edo ezkutuan jaso eta, seguru asko deseroso sentiduko zarala, hasikeran behintzat. Azken finean, hori ez dalako ohiturea; kontrakoa, androk lirain eta perfektuak izateko depilau egin behar gara; ezpabere "narrasak", "zikinak", "zorritzoak" eta abar luze izango gara.

Nik aproba hori egin dot eta jente gehiengoarengana heltzeako asmotan bizi izan dodan esperientziaren gainean berba egin gura dot. Ez deusatz inori zer egin behar dauan esango edo kuestionauko; baina bai erakutsi mundua ez dala bukatzen depiletan ez bazara, eta oso pozik bizi zaitezkezala holan. Azken finean, aukerea da, ez bete beharra. Baina aukerea erreala izateko guztientzako presino soziala ez litzateke existidu behar; hau da, guk geuk itxi beharko geunskio, hori egiten badogu, besteak epaitzeari, insistiduteari, txantajea egiteari, txarto begiratzeari...

Nerabezaroan ez neukan hau oso argi. Sasoi haretan amak ordaintzen eustan depiletako zira. Niretzat denpora galtzea zan, min egiten eustan, buruhaustea neukan... Beranduago gehiago ez depiletea ebatzi nebanean, hara nor, eta neba txikia ez zan ba depiletan hasi! Berak aukerea eukan depilau ala ez, baina nik ez, andra lirain

eta txukuna izateko depilauta joan behar nintzan beti... Badakizue zer ziran etxean konparaketa horreek?

Etetik kanpo joan nintzanean orokorrean ez neutsan eta ez deusatz depilazinoari buelta askorik emoten. Naturaltasunez ez naz depiletan eta minigona jantzi daiket; ez dot uleez pentsetan ligetan dodanean, eta hondartzara arazo barik joaten naz. Adibide honeek aitatu dodaz lagunen artean gehien aitutzen diran egoerak diralako; horretan ez depileteak hartzean dau pisu gehien. Ni oso pozik bizi naz ez nazalako honetaz kezkatu behar, eta denpora gehiago daukat beste gauzetan inbertiduteko, dirurik ez dot gastetan holango produktu edo zerbitzuetan eta ez nago beti kezkatuta gura dodan lekura edota gura dodan moduan joan ala ez joateko.

Orokorrean holan bizi naz, baina momentu guztietan ez dodala hain argi izaten eta presino soziala eta familiarrengaitik depiletan nazalala onartu behar dot, "zer esango daben" horren presinoagaitik. Adibidez, momentu deseroso bat niretzat ezkontzak dira, eta eskerrik askotara ez nazela joan! ze kuestionetan nazalako ea zergaitik sentiduten dodan momentu horretan depilau beharrenean presino. Beste momentu bat da, amaren herrira joaten nazanean udan. Hau dator, behin amak esan eustalako beragaz ugerlekura ez joateko depilau barik. Itzelezko haserraldi baten ostean ebatzi neban ez ebalana penez merezidu beragaz egoten nazan egun gixi horreetan haserretzea eta burrukan egitea, eta hara nor eta Pili depiletan da! Eta pozik nago orduan be.

Baina horixe da kontua, ez? Bakotxak erabagitea noz bai eta noz ez; hau da, depiletea aukera bat izatea, eta ez bete beharra andra izatearren. Eta honegaz batera depiletan ez garanok ez epaitzea.

Amaitzeko, konbidau gura zaituet martiaren 11ra arte egongo dan Rocio Salazarren *Eta ez banaiz berriz depilatzen, zer?* erakusketara Igorreko Kultur Etxean, eta berak egingo dauan *Mentiras para ser una mujer de verdad* liburuaren aurkezpena, martiaren 7an zazpiretan. Niri bere ilustrazioak izugarri gustetan jataz, oso errepresentauta sentiduten nazalako eta umoreagaz landuten daualako androk daukagun zama hau. Animauko zarie?

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Gedar



Haserrealdietan, oso haserre dagoanak, edo estualdi txar baten ostean, basoan galduta dabilenak kasurako, erabilitako berba zaratatsuari esaten jako gedar (gedarra, agoskatuta). Batuan, garrasi eta deiadar erabilten dira. Garrasi esateko gallas/gailazi (gallesie, agoskatuta) berbea be entzuten da Arratia inguruan. Nagusia dan gedar honegaz batera dedar, deedar, diar, dear, didar, diadar eta deadar be jaso dira.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torre auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpresak Batzua gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Ezin desbardina onartu

Modernoak ei gara, oso. Gizarte aurrerakoian bizi ei gara; gu geu aurrerakoiak gara, progresistak, buru argiak eta adimen irekiak. Gitxituen, murriztuen eta txikien alde egiten dogu. Bardintasun berba agotik kendu barik daukagu aspaldian. Kolore morez bete doguz bazterrak eta hormak, horrek argi eta garbi adierazoten dau bardintasunaren alde egiten dogula. Euskaldunok gaitasuna dogu alkar aituteko eta errespetetako; azken baten horixe eskatuten dogu geuretzako: errespetoa.

Eta errespeto berbeari bueltaka hasi naz. Zer da errespetoa? Desbardina dana onartzea? Geure buruari esatea "hori ez da nire modukoa, baina onartu egin behar dot holakoak be badirala munduan"? Geure burua sasitolarentziaz janztea edo kamuflatuta?

"Ez", esan deusat neure buruari. Errespetoa ez da hori, errespetoa desbardintasuna-

gaitik poztea da. Poztea inor desbardina dalako; persona bat, kultura bat, sexu joera bat... Desbardintasuna ugaritasuna da, eta ugaritasuna aberastasuna; beraz, desbardintasunak poztu egin beharko gindukez, aberastu egiten gaitualako.

Baina bardintasun berbea mingainean baino ez daukagu, neugandik hasita. Sano diskurso politik eraturten doguz, berbaldi hunkigarriak egiten doguz; baina ez gara pozten inguruan desbardina dan ezer ikusten dogunean. Halan balitz, oso arazo gitxi eukiko geunkez; halan balitz nerabe batek ez leuke bere burua hil beharko sexu joera desbardina daualako edo mutila izanda neska sentiduten dalako, zein neska izanda mutil sentiduten dalako.

Kontua da diskurso sasimodernoetan galtzean garala, baina oin dala ehun urte bezain atzerakoiak garala, eta nerabe bateri ezin jasaneko sufrimentua eragiten deusagula, gehienen modukoa ez dalako, desbardina dalako azken baten. Hori da lehengo egunean Ondarroan bere burua bota eban Ekairi egin deusaguna. Haren pekatua: gehienen joeratik kanpo geldituta. Gure pekatua: ez jakitea eregiten errespetoa zer dan dakian gizartea, desbardintasunagaz poztu egiten dan gizartea, ugaritasunari eta aberastasunari atek zabalduten deusazana. Ordura arte gizarte pobrea izango gara, bihotz pobreduna.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO



BEGI TXINDORRA

Egunokaz hainbat eta hainbat lekutako jentek bisitau dau Igoerre: urte barrian sartzeako puntuan egozan txinatarrak euren dragoi eta guzti, itsasoko arraintxoak, txamanak, Texas sakonetik etorritako indio eta bakeroak...

Baina Alpeetako familia bateri buruz pentseta eskatuten badeusuet... nor jatortzue burura?

Hori dok/na eta! Heidi eta bere lagunak! Ba bai irakurleok! Familia honetako txikitxuen biak eroan dabe aurtan be Igorreko Inauterietako umeen kategoriako bakarkako saria (salbuespena eginda klaro, bi dira eta!). Bagilaren 10ean Heidi eta Klararen azpian dagozan sorgintxo biak joango dira Zu bai Zu 2 Talentu Lehiaketako finala ikusten!

Zorionak Marie eta Araitz, itzelak zarie!

Naiara Zurinaga



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarroa

Bidebarri 1, behea
48140 Igoerre-Bilakaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA

Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

AREATZA

Kultur esparru barriak sortzeako udal eraikinak berrantolatuko ditue

Gazteleku, liburutegi eta kultur esparru barriak sortzeako udal eraikinak berrantolatuko ditu Udalak. Udal bulegoak beheko solairura eroan gura dabez eta libre geratzen diran espazio horreek aukerea emongo dabe horretarako.



Areatzako plaza edurtuta.

Erredakzioa

Berrantolaketa horrek eroango dau 2018ko aurrekontuetako diru partidarik handienetako bat; 12.000 euro proiekturako eta 100.000 lanetarako.

Areatzako udal kontuak zezeila-ren 14an onartu ziran, EH Bilduko aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Udal kontuak 1.617.978,77 euroko sarrerak eta 1.612.388,94 euroko gastuak aurreikusten dabez; Udalaren Areatza 1338 soziedadeagaz aurrekontu konsolidaduan, sarrerak eta gastuak 1.666.000 eurora ailegetan dira.

Asier Garcia Areatzako alkateak beharginen kopurua eta orduak, eta eurengan egindako gastua handituten saiatu dirala beti azaldu deutso BEGITURI. Hori dala eta aurten, brigadan urte osoan behargin bi eta hiru hilabetez beste bat kontratatuko aukerea egongo da, eta administrari lanpostu bat be oposizino-lehiaketara atera dabe.

Alde zaharra indartu

Aurrekontuak egiteko herritarren eretxiak eta ekarpenak jaso eban Udalak zemendiaren 20an hasitako prozesu parte hartzaile baten. Gazteleku, liburutegi eta kultur esparruak sortzea, Askatasun kalean adokinak aldatutea

eta argiteria hobetzea izan ziran gehien eskatutako esku hartzeak.

Askatasun kaleko adokinaren aldatetarako, 90.000 euroko diru partidea dago. "Adokinak aldatuteko lanak aprobetxauko doguz gune hori guztia barriztu eta antolatuteko" dino alkateak. Argiteriari jagokonean, 2017an auditoria energetikoa egin dabe Areatzan eta oin lauzpabost urterako plangintzea egin eta hori gauzatzen hasteko 40.000 euro dagoz.

Areatzako alde zaharra be indartu gura dau Udalak. Azkenengo urteotako politketan alde zaharra itxi egin dala apur bat eta kaskotik kanpora eroan dobezala zerbitzuak eta eraikuntzak dino alkateak. Horregaitik, gazteak kaskoan geratu daitezkan, alokairu sozialak ipiniko ditue eta alokairurako diru laguntzak emon. Udalak hiru pisu daukaz alde zaharrean, eta etxeen egokitzapenak egiteko 40.000 euro dagoz. Udaletxetik 20.000 euro kudeatuko dira eta beste 20.000ak Areatza 1338tik. Alokairugaz lagunduteko 6.000 euroko partidea dago.

Garapen ekonomikorako, enpresa mintegi proiektua dauka Areatzak. Horretarako 8.500 euro dagoz aurreikusita. Turismorako 7.000 euro.

Bizikidetzarako plan bat egiteko eta parte-hartzea sustatzeko be dirua dago Areatzako 2018ko kontuetan.

EAJ-PNV ados ez kontuokaz

EAJ-PNVkoak kontrako botoa emon eben euren planteamentu edo proposamenetatik "bat bera be ez dabelako jasoten" aurrekontuok. Jeltzaleak Areatza 1338 soziedade publikoko kontabilidade eta idazkaritzarako zerbitzua kontratetea beharrezkoa ikusten dabe. Larre-

gizkoak jotzen dabez parte hartzea bultzatzeko dagoan 10.000 euroko partidea, protokolorako 8.000 euro eta auditoria bat egiteko dagoan 7.260 euro. Igaz eta oin dala urte bi be, aurreikusten zala auditoria hau egitea eta ez zala egin dinoe.

EAJ-PNVkoak kritiko agertzen dira UEMARA bideratzen dan di-

ruagaz. 6.025 euro dira eta "inok ez daki ze zerbitzu jasoten doguz diru horren truke. Akaso emote altruistea izango da". Gainera ez dala kontuan hartzean herritarrak egindako hainbat proposamen: garbiketa berezien premina, frontoiko konponketak eta bideak txukuntzeko beharra, barbarako.

erosketak
%20
merkeago

Igorre
gure
dendakaz

Etorri Igorrera
erosketak egitera!

25€KO BALIOA DU
PREZIOA: 20€

Otsailaren 26tik
martxoaren 31ra

ANTOLATZAILEAK
IGORREKO UDALA

LAGUNTZAILEAK
ame
SabadellGuipuzcoano

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



UBIDE

Herriko Tabernea ustiatzeko proposamenak martiaren 5era arte aurkeztu daitezke

Erredakzioa

Ubideko Udalarena da Herriko Tabernea eta bost urtez alokairuan hartzeako interesa daukien udaletxean izena emon eta proposamenak aurkeztu daitezke martiaren 5era arte.

Herriko Tabernearen lizitazioa taberna eta jatetxeko zerbitzua emateko da. Beheko solairuan taberna eta jatetxea dagoz eta lehenengo solairuan etxebizitza. Etxebizitza be sartzean da lizitazioan. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua, hilean 400 eurokoa gehi BEZa izango da.

Esleitzeko erispideak modu automatikoan baloratu leitezak izango dira: preziorik onena (90 puntu) eta euskerearen ezagutzea (10 puntu), hain zuzen be. Euskerearen ezagutzea

dokumentu baten bidez ziurtatu beharko da, EGA edo antzekoa, edo alkarrizketa baten bidez.



Adjudikazioa

Behin betiko adjudikazioa, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta 20 lanegunetako epean egingo da. Adjudikaziodunak, 6.000 eurotako behin betiko fidantzea ezarri beharko dau, kontratutik eratorritako betebeharguztiak beteten dirala bermatuteko, eta ixten jakozan negozio-elementuetan gertatu leitezak nariadurari aurre egiteko, esleipena egin eta hamar egunetako epean.

ZEBERIO

Asiako Liztorra berbabide

Erredakzioa

Asiako liztorrak arazo ugari sortu dauz Zeberio herrian. Izan be, azken urteetan liztor-kabien kopurua asko hazi da. Izurrite inbaditzaile honen hedapena ekiditeko asmoz, Zeberio Udalak Asiako Liztorrari buruzko berbaldi informatiboa antolatu dau Bizkaiko Erlazainen Elkartearen laguntzeagaz. Berbaldia, martiaren 3an 10:00etan izango da Zeberio Gaztelekuan. Berbaldia dobakoa izango da eta persona guztientzat zabalik dago. Koldo Belasko erlazainak, Asiako

Liztorraren biologiaz, jatorriaz eta banaketaz, liztor-kabia topau ezkerro jarduketa-protokoloaz eta udabarrian erreginak harrapatze-ko tranpak egiteaz eta jartzeaz egingo dau berba.



ARTEA

Presoai lagunduteko ekimena aurkezteko bertso-afaria egingo da martiaren 2an

Erredakzioa

Euskal presoek gaia gizarteratzeko ekimen berezi bat ipini dabe martxan Arteko hainbat bizilagunek. Aprilean, tatuatzaile boluntarioak etorriko dira herrira jentea tatuatzera eta tatuajeakaz batutako dirua euskal preso, igeslari eta errefuji-duentzako izango da. Hiru egunez iraungo dau ekimenak eta egitarau oparoa prestau gura dabe ordu-rako: dokumentalak, berbaldiak...

Ekimenaren aurkezpena, martiaren 2an, 21:00etan, Arteko Kultur Etxean izango da. Horretarako, bertso-afaria egingo da. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia izango dira bertsolariak eta Igor Menika gaitzartzailea. Afarirako tiketak, Arteko Herriko Bentan, Igorreko Axular

Herriko Tabernan eta Gau Loran, eta Areatzako Bixer tabernan erosi daitezke. Batutako dirua ekimena martxan ipinteko izango da.



ZEANURI

Errefujiadu eta migratzaileen eskubideen inguruko kafe-tertulia

Migratzeko errazoiak eta gure jarkerearen inguruan hausnarketea egiteko aukerea egongo da martiaren 9an, arrastiko 19:00etan, Zeanuriko Eguzkiolan, Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratiak antolatutako kafe tertulian.

Erredakzioa

Barriketaldian, Juan Hernandez EHUko Zuzenbide irakaslea eta Herrien Auzategi Iraunkorreko kideak, "nekropolitika" eta Giza Eskubideen gainean egingo dau berba; Mikel Zuloagak, Arteko Herriko Benta harrera etxeok migratzaileen bizipenaz jardungo dau; Jose Alberto Vicentek, Etxebarriko abadea eta Harribide Fundazioko sortzaileak eroldaketak eta eskubideak hartuko ditu berbabide; Ana Elena Altuna, Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko Harrera Batzordeko kideak, Zierbanan eta beste lekuetako harrera esperientziak kontauko ditu, eta Inazio Roblesek, Bilboko portutik Saudi Arabiara bialtzekoak ziran armen zamaketan parte hartu ez eban suhiltzaileak, Bilboko portutik egiten dan armen esportazioen barri emongo dau. Hau da, migratzaileen zergaitiak, harrera eta babe-



Kartela.

sa, armak eta desobedientzia eta giza eskubideak dira barriketaldian landuko diran gaietako batzuk.

Eskubide guztiak denontzat lemapean, gai horreen gainean hausnarketea egiteaz gainera,

personen arteko sareak egiteko helburua be badauka Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratiak antolatutako kafe-tertulia.

Saioa euskeraz, gazteleraz eta ingelesez izango da.

DIMA

Euskerearen gaineko jardunaldia

Erredakzioa

Dimako Abizarie alkarteak, herrian euskerearen erabilereak behera egin dauala eta horren gainean hausnartzeko, euskereari buruzko jardunaldi bat antolatu dau martiaren 3rako, 11:00etatik 13:00etara eskolan.

Abizarie euskerearen erabilerea bultzatzeko sortu zan eta alkarteok, herriko jentearen eretxiak jaso gura ditue jakiteko, herritarrek zelan ikusten daben egorea

eta zer egin leiteken beherakada hori geldituteko.



IGORRE

Bostehun sinadura batu ditu Igorren Ebatzi elkarteak herri konsulta egiteko

Erredakzioa

Zezeilaren 20an, Igorren Ebatzi, Gure Esku Dagoko taldeak, maiatzaren 6an Igorren egingo dan herri konsulta prestatzeko prozesuaren barri emon eban jentauraren. Alkartekoak, bostehun

sinadura batu ostean, hainbat ekitaldi prestatu dabez igorretarren parte hartzea bultzatzeko.

Aprilean ebatziko dabe igorretarrak herri konsulta egingo dan Euskal Herriaren estatus politikoaren gaineko itauna. Horretarako, inguruan egindako galderak

hartuko ditue kontuan, prozesu parte hartzaile baten bidez Igorrekoa egiteko. Baina honen aurretik beste ekintza batzuk be antolatu ditue.

Martiaren 2an, prozesua bera aurrera aterateko behar dan dirua lortzeko, tonbolea antolatuko dabe Rugby tabernearen ondoan. Prozesuan parte hartzea sustatzeko barriz, *Elkarrekin-Together* dokumentala ikusteko aukera egongo da oin-dino zehaztu barik dagoan martiko egunen baten Kultur Etxean.

Zinegotzien babes ekitaldia aprilaren 22an izango da, herri konsultaren bezperetan. Bertan Igorren diran eta izandako zinegotziak erabagiteko eskubidearen alde agertuko dira eta igorretarrak animauko dabez maiatzaren 6an botoa emoten.

Giza-katea

Baina maiatzaren 6an ez dira amaituko erabagiteko eskubidearen aldeko ekitaldiak. Gure Esku Dagok, Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dituan giza-katea antolatu dau bagilaren 10erako, 201,9 km. Igorreri 103. km.a jagoko, Erletxes eta Boroa artean, Zorrontzarantza.



Igorren Ebatzi alkarteko kideak.

DIMA

Diman ospatuko da aurten Udalerri Euskaldunen Eguna

Lehen urtero egiten bazan be Udalerri Euskaldunen Eguna urte birik behin ospatuten da 2016tik. Aurten, maiatzaren 26an izango da Diman.

Erredakzioa

UEMAk eta Dimako Udalak antolatuko dabe alkarlanean,

Arratiako beste udal batzuk eta Dimako alkarte eta eragileen laguntasunagaz.

Udalerri Euskaldunen Egunean



Zezeilaren 20an egindako batzarra.

UEMAk batzar nagusia be egiten dau eta bertan bere organu gorena aukeratuten dau. Hau da, UEMAko kide diran 85 herriak euren ordezkariak hautatuko dabe. Udalerri Euskaldunen Egunaren helburua, udalerri euskaldunetan euskeraz bizi dirala gogoratutea, ospatutea eta alkarren barri izate da.

UEMAko udalerri guztien artean 240.000 biztanle inguruko gune euskalduna osotuten dabe. Dima 2016tik da UEMAko kide.

Egitaraua prestatzen

Zezeilaren 20an izan zan antolaketeari ekiteko lehenengo batzarra udaletxean. Bertan, alkatea, UEMAko ordezkariak eta Dimako alkarteetako ordezkariak egon ziran, egitaraua prestatzen hasteko.

Herriko alkarteaz gainera, Arratiako UEMAn dagozan beste udalerrietako laguntza be izango dau Dimak. "Herriko alkarteen laguntza ezinbestekoa izango da, baita beste herrietakoena. Beste herrietako zinegotziak batu gara euren partaidetzea eskatzeko" azaldu eban Ibon Iza Dimako zinegotziak.

Egitarau oparoa antolatu gura dabe. Ekitaldiak bezperan hasiko dira, barikuan, eta domekara arte luzatutea be leitekena da.

ARRATIA

Enplegurako informazio zerbitzua emongo dabe Areatzan eta Igorren

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) enplegurako informazio zerbitzua abiarazo dau Areatzan eta Igorren. Enplegu bila edo enplegugarritasuna hobetu gura dabenai, banakako arreta berezitu eskeiniko deutse zerbitzuak, eta tailerrak be egingo dira taldeak, enplegua bilatzeko beharrezkoak diran tekniken barri emoteko.

Zerbitzuan orientatzaile bat egongo da eta laneratzeko ibilbidean emongo dau laguntza, baita laneratzeko ahalbidetzen daben

tresnak erabilten be.

Areatzan eta Igorren

Zerbitzuak Areatzan eta Igorren emongo dira. Areatzan, Askatasuna kaleko 34. zenbakian, martitzen eta eguenetan 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era, eta eguaztenetan 09:00etatik 14:30era. Igorren, barriz, Arratiako Udalen Mankomunitatearen egoitzan, astelehen eta eguenetan 09:00etatik 14:30era.

Informazio gehiago gura izan ezker, 671 057 702 telefonora deitu daiteke.



Areatzako bulegoa.

ARRATIA

Bingen Zupiriak eta eskualdeko eragile sozialak euskereari buruz jardungo dabe Areatzan

Erredakzioa

EAJ-PNVk antolatuten dauan *Arratiarrakaz berbetan* berbaldi zikloan, Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Areatzan izango da martiaren 16an, udal-terteko erabilera askotako aretoan.

Berbaldian Zupiriak, euskerearen egoera, erabilera eta "erakundeen aldetik emoten dabizen bultzadearan" barri emongo dau. Ondoren, Arratian euskerearen esparruan behar egiten daben giza eragileak mahai-inguru batera konbidau dauz

EAJ-PNVk, euren eretxiak azaldu-terteko edo galderak egiteko aukerea izan dagien.

Arratiarrakaz berbetan izenburua dauka Arratiako EAJ-PNVk 2017 urtean martxan ipinitako berbaldi zikloak, udalerrietara politikaren arlo desbardinetan jardun daben personak hurreratzeko. Ziklo irekia da, hau da, biztanle guztiai zuzendua, hizlariak eta parte hartzaileak gaur egun erakundeetako agendak marketan dituen eta euskal gizartearen kezka nagusi diran gaien gainean berba egiteko.

Areatzakoa, zikloko zortzigarren berbaldia izango da.



Bingen Zupiria irudiaren erdian.

MARTIAK 8

Greba feministea eta beste ekintza ugari

Arratiako andra taldeak, talde feministak eta erakundeak, Euskal Herriko mobimentu feministeagaz bat egingo dabe "Emakumeok planto" aldarriagaz. Hori dala eta, lau esparrutan, lana, ikasketa, zaintza, eta konsumo esparruetan, lan-ixteak egingo ditue andrak.



Igazko Arratiako Andren Mendi Martxako irudia.

Erredakzioa

Arratian, konzentrazioak eta manifestazioak be egingo dira, baita beste ekintza ugari be, andrak mendean gura dituan sistema salatuteko.

Igaz, 70 herrialde baino gehiagotan, nazioarteko andren gre-

barako deialdia egin eben. Gurean deialdiak ez eban arrakasta handirik izan, baina aurten "Emakumeok planto: Emakumeok gelditzen bagara, mundua geldituko da" lemeagaz Euskal Herriko Mobimentu Feministek eta ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru eta EHNE sindikatuak lau orduko

Bediatik urtengo da Arratiako Andren VIII. Mendi Martxea martiaren 4an

lan-ixteak deitu ditue, 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara, hain zuzen be. Lan-ixte honeekaz mobimentu feministeak ikustarazo gura dau andra barik mundua gelditu egingo litzatekela, indarkeria matxistea eta sistema patriarkala salatu gura ditu, andren "zamak" begibistan ipini, eta alternatiba feminista bat eregi. Lan-ixteez gainera, konzentrazioak egingo dira herrietan eta mobilizazioak Bilbon.

Arratian, Igorreko Kultur Etxe ondoan, 12:00etan, konzentrazio zaratsua egiteko deialdia dago. Zeberion, 11:00etan izango da elkarretaratzea udaletxe aurrean. Arrastian barriz, Bilboko mobilizazioetara joateko deialdia egin dabe eskualdeko andra talde eta talde feministak.

Arratiako Andren VIII. Mendi Martxea hilaren 4an izango da. Hitzordua Bediako plazan 10:00etan da. Ondoren kopaua egingo da liburutegian.

Herrietan ekintza ugari

Orratzak Arratiako talde feminista barriaren aurkezpena egingo da martiaren 2an, 18:00etan, Igorreko Axular Herriko Tabernan. Bezeran, 16:30ean, bertan, mural barria pintauko dabe.

Arteak pelotariengan ipini dau fokoa eta andra pelotarien iragana gogora ekarriko dau erakusketan baten bitartez; baita oingoan partiduak eskeini be. *Emakumea eta euskal pilota* erakusketan Arteako Kultur Etxean egingo da ikusgai martiaren 2tik 11ra. Han, besteak beste, erraketisten barri emoten da. Izan be, XX. giza-

diaren hasikeran, pelota jokoan, zesta puntan edo erraketa modalidatean, andrak kirolari profesionalak izan ziran eta mundu osoan ibili ziran. Hilaren 11n barriz, pala eta pelota partiduak egingo dira 12:15ean Arteako frontoian.

Martiaren 6an, Irantzu Varelak *El feminismo está de moda* berbaldea emongo dau Arantzazuko Kultur Gunean, arrastiko 19:00etan. "Feminismoa leku guztietan dago eta politikoki erabiltzen da, baina erabilera hutsa da, benetako helburu feminista bakoa. Horixe salatuten dau Varelak berbaldian" dino Oihane Zulet Arratiako Udalen Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak. Arantzazun barriketaldia be presatu dabe hilaren 16rako. Zabalik andra alkarretateko antolatuta, arrastiko 18:00etan izango da Kultur Gunean eta han Etxeko Langileen Elkarretaren laguntzeagaz zaintzaren eta andren papelaren inguruan hausnarketea egiteko aukerea egingo da. Izan be "helburua zaintzara dediketan diran andrak ikusgai egitea eta omentzea da, ze nahiz eta bizitzaren sostengurako garrantzia handiko lana egin, gizarteak ez deutso lan honeri baliorik emoten, ezta saritzen be" dinoe antolatzaileak.

Igorreko Erakusketan Aretoan, edertasun ereduaren gainean hausnarketea bultzatzen dauan erakusketan dago martiaren 11ra arte. *Eta ez banaiz berriz depilatzen, zer?* titulupean, Rocio Salazar Sevillako ilustratzailearen lanak batzean dira bertan. Martiaren 7an, Salazar Igorren egingo da *Mentiras para ser una mujer*



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net



www.alkizabal.net











ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

Martxoak 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

KONTZENTRAZIO ZARATATSUA
IGORREKO KULTUR ETXEAN - 12:00
LEHENDAKARI AGIRREN PLANTO!

<p>ARTEA</p> <p>EMAKUMEA ETA PILOTA Erakusketa Martxoak 2-11 Kultur Etxean</p> <p>BEDIA</p> <p>MENDI MARTXA + LUNTXA Martxoak 4 Bedia Plazan - 10:00</p> <p>ARANTZAZU</p> <p>EL FEMINISMO ESTÁ DE MODA Solasaldia, Irantzu Varela Martxoak 6 Kultur Etxean - 19:00</p> <p>IGORRE</p> <p>¿Y si no me depilo más? Solasaldia, Rocio Salazar Martxoak 7 Kultur Etxean - 19:00</p>	<p>LEMOA</p> <p>Ez da kasualitatea Bertso saio musikatua Martxoak 9 Gaztetxean - 20:00</p> <p>AREATZA</p> <p>Nomobofikak Antzezlanak Martxoak 10 Udal Areto Nagusian - 20:00</p> <p>DIMA</p> <p>PREST GAUDE Antzezlanak Martxoak 10 Abaroa lokalean - 19:00</p> <p>ZEANURI</p> <p>AKORDEAN NAZ AHIZTU EZ ITEKO Zeanuriko Andreak kontetan Dokumentala Martxoak 11 Kultur Gunean - 18:00</p>
--	---

de verdad liburua aurkezten eta beragaz berba egiteko aukera egongo da Kultur Etxean, 19:00etan. Bezperan, hau da, martiaren 6an, 11:00etan, Urbieta futbol zelaiaren be, edertasunaren ereduaren inguruko hormairudia egingo dabe Institutuko ikasle eta bertara batzean diranen artean.

Lemoan bertsoak erabiliko ditue sistema patriarkala salatuteko. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Oihana Iguaran eta Alaia Martin bertsolariak *Ez da kasualitatea*

bertso-saio musikatua eskeiniko dabe martiaren 9an, 20:00etan Gaztetxean. Eurakaz, Isaak Arruti eta Gari Otamendi egongo dira musika ipinten. Ondoren kopaua egongo da hurreratzen diranentzat.

Hurrengo egunean, hilak 10, Areatzan, Nomofobikak taldeak *Sarean kateatuak* antzezlanak eskeiniko dau, 20:00etan, Udaltxeko Areto Nagusian. Diman beste antzezlan bat ikusteko aukera egongo da. Izan be, Lakrikun taldeak *Prest gaude* lana taularatuko dau Abaroa Aretoan

ORRATZAK

Taldea feministak elkartzen

AURKEZPENA
Martxoak 4, barikoa, 18:00 (Gerruko Herriak)

MURAL BARRIE PINTETIAKO
Martxoak 4, eguena, 18:00 (Gerruko Herriak)

19:00etan. Ondoren, 21:00etan, herriko andrak afaria egingo dabe eta afalostean musika animazinoa egongo da.

Zeanurin, martiaren 11n, arrastiko 18:00etan, Mazalak *Akordetan naz, ahiztu ez iteko* dokumentala aurkeztuko dau. Ainhoa Mendia eta Irati Urien zeanuriztarrek egingako film honetan, 1936ko gerrako testigantzak jasoten dira. Hau da, Zeanuriko andrak gerra sasoiaren bizitza izan eben kontetan dabe dokumentalean: bonbardaketak, alde egin beharra, ondoren bizi izandakoa eta abar.

Zeberion, greba feministea

"eta ez banatuz berri duplikatzen, zer?"
Rocio Salazarren antzezlanak
etsailaren 20tik martxoaren 11ra
Igorreko Kultur Etxean

"mentiras para ser una mujer de verdad"
Rocio Salazarren antzezlanak
martxoaren 7an / 19:00etan
Igorreko Kultur Etxean

mural partehartzailea
martxoaren 4an / 18:00etan
Udaltxeko Areto Nagusian

dala eta, ekintza guztiak martiaren 9ra pasatu dira. Egundorretan, hau da martiaren 9an, Marta Barainka Clown feministek *La Modern* ikuskizuna eskeiniko dau udaltxean, iluntzeko 20:00etan.

Orratzak talde feministeen aurkezpena
Atzenengo hileotan, aldaketak egon dira Arratiako andra talde eta talde feministen artean. Areatzako Emakume Foroak ziklo bat amaitutzat emonda, agur

esan eban igazko abenduan. Baina feminismoaren enbor beretik sortu da beste talde bat Arratian, Orratzak izenekoa. Talde feministak mistoa da eta martiaren 2an, arrastiko 18:00etan, Igorreko Axular Herriko Tabernan egingo dabe taldearen aurkezpena.

Arantzazuko Zabalik Emakume Elkarteak, Arteko Emakume Taldeak, Dimako Andraizeak, Noka Igorrekoak eta Zeanurin, Mazala Zeanuriko Emakume Taldeak, osotuten dabe Arratiako taldeen sarea.

Arratia Ubide eta zeberriko euskerea eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be **Degitu-Lagun**

Etxean jasoko duzuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko duzu.

Hamabostero
Degitu zeure etxean

Izen-abizenak:
Telbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Iurteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

Zertu Kultur Elkartea,
Herriko Plaza 21, 20112 Artea

begitu
emakume taldeak

ATLETISMOA

Onditz Iturbe eta Iraia Garcia BM Bilbao taldekoak garaipen gehiagoren bila



Iraia Garcia eta Onditz Iturbe.

Erredakzioa

BM Bilbaok historia egin eban zeilaren 25ean Gijonen, Espainiako Txapelketan, kros lasterketa biak, luzea eta laburra, irabazita. Taldeak luzea irabazten dauan zazpigarren aldian da eta lorpen horreek Espainian inoz egondako andrazko atletismo talderik onena lez sailkatzen dabe. Talde bikain honetan, Arratian sano ezagunak diran atleta bi dagoz. Onditz Iturbe igorretarra eta Iraia Garcia, Igorre eta Lemoako Gu Be Bai Runners taldeetako entrenatzailea. Iraia Garcia parte hartu eban Gijongo lasterketan eta sano lasterketa ona egin eban. Bere 13. postuak puntuak emon eutsazan taldeari garaipena lortzeako.

BM Bilbaok, zuen taldeak, dana irabazi dau aurten, Gijonen lorpen historikoa lortuz.

nen lorpen historikoa lortuz.

I.G.: BM barruan talde bi dagoz; bata, elite taldea, eta bestean, batez be, Euskal Herriko atletak dagoz. Klubetako Espainiako Kros Txapelketea irabazi dogu, bai laburra eta bai luzea. Europakoan bigarren egin genduan. Bizkaikoa eta Euskal Herriko Txapelketea be irabazi doguz.

Noz sartu zinen taldean?

I.G.: Ni BMn oin dala 11 urte hasi nintzan. Gero joan nintzan eta barrero be BMra bueltau nintzan oin dala lauzpabost urte.

O.I.: Nik be lauzpabost urte daroadaz BM Bilbao taldean. Gitxi gorabehera Iraiagaz batera sartu nintzan eta.

Zergaitik hasi zinen atletismoan?

I.G.: Nik kirol guztiak probau dodaz eta atletismoan jarraituten dot gehien gustau jatana izan dalako.

Gure etxean aitak be egiten eban. Ni bera lagunduten hasi nintzan eta oin arte.

O.I.: Nik be antzera. Nebea ikusten nebanez, hasi egin nintzan atletismoan eta gero gustura nengoan lez, jarraitu egin dot.

Zeintzuk dira zuen hemendik aurrerako erronkak?

O.I.: Urdaibai Kopa Trail egiteko asmoa daukat, gero Gipuzkoako mendi lasterketa batzuk eta maratoiak. Oin zentrauko naz gehiago mendi lasterketan, ze igaz hasi nintzan mendi lasterketak egiten eta gustau egin jata.

I.G.: Aurten Master kategorian sartu naz, beteranoetan, eta maila horretan zeozer egin gura dot, garaipen batzuk lortu.

Alkarregaz entrenetan dozue?

I.G.: Ez, ez. Hau ez da futbolaren modukoa. Hemen bakotzak bere entrenadorea dauka. Gu hur bizi gara, baina urrun bizi diranak be badagoz taldean. Zallan, San Inazion, Barakaldon, Kantabrian eta Madrilen bizi diranak, hain zuzen. Galdakaoko Bego Gil daukat entrenatzaile.

O.I.: Nire entrenatzailea Edu Frutos da, Laudiokoa.

Talde berean egoteaz aparte, badaukazue beste gauza batzuk komunean. Esate baterako, Iraia, zuk, andra taldeak entrenetan dozuz eta Onditz, zuk gaztetxoak, ezta?

O.I.: Ez, aurten ez. Entrenau izan dodaz baina aurten ez. Guraso alkartearen ekimenez Institutuan talde txiki bat sortu zan. Egon gitan hiruzpalau urte eta gero nik itxi behar izan neban, eta, nik dakidala, ez dabe jarraitu.

Zelan ikusten dozue galapan egiteko zaletasuna Arratian?

O.I.: Nik uste dot gero eta jente gehiago ikusten dala galapan Arratian. Gazteak ez hainbeste baina andrak gero eta gehiago. Gero

mendi lasterketan-eta, andrak ez dabe hainbeste parte hartzean. Gorbeia Suzien-en, esate baterako, oso gitxi hartu eban parte.

I.G.: Nik Arratian zaletasuna oso ondo ikusten dot. Galapan egiteko taldean, zorionez, gero eta andra

gehiago dagoz. Talde bi daukadaz Arratian bata Igorren eta bestea Lemoan 2015etik. Taldeak egonkortsu egin dira. Horrek esan gura dau andrak gustura dagozala eta barnertuta daukiela ariketa fisikoa egitea garrantzitsua dala.

Onditz Iturbe Arginoniz

Igorretarra. 26 urte. 20 urte atletismoa egiten.

Euskadiko txapela irabazi eban Junior mailan 2009 eta 2010ean, eta promesa mailan 2011 eta 2013an. Bizkaikoa be kategorian horretan irabazi eban 2009tik 2013ra.

2016an, senior kategorian 3. egin eban Bizkaiko Txapelketan. Aspaldi honetan, maratoietan eta mendi lasterketak egin ditu batez be Iturbek. Aramotz Trail Mendi Lasterketea irabazi eban 2017an eta Gorbeia Suzien Mendi Lasterketan lehen arratiarra izan zan. Arratiako Maratoi Txikia 2015, 2016 eta 2017an irabazi eban.

Iraia Garcia Etxebarria

Zornotzakoa. 36 urte daukaz eta 24 urte atletismoa egiten.

Krosean Bizkaiko txapeliduna izan da 7 aldiz, senior kategorian sei aldiz (2012, 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017an) eta aurten estrenau dauan beteranoetan be Bizkaiko txapela jantzi dau urtailan. Euskal Herriko kros luzean txapel bi ditu eta laburrean bost.

FUTBOLA

Lidertza jokoan

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia futbol taldeak atzen bi partiduak irabazi ditu eta bigarren dago sailkapenean. Datorren partidu erabakigarria izango da Bizkerre liderraren kontra jokatuko dau-eta zapatuan, martiak 3 arrastiko 15:30ean etxetik kanpo.

Andrazkoen Arratia B taldea ostera, ligea lehen postuan amaitu eta gero, igoera fasea jokatuten hasiko da. Datorren partidu Adiskideak taldearen kontra jokatuko dau etxe-

tik kanpo martiaren 4an 11:45ean.

Gizonezkoak

Gizonezkoen Arratia A taldea bederatzigarren postuan dago 22 jardunaldi jokatu eta gero. Atzen partidu bietatik bat irabazi eta bestea galdu egin dau Arratiak. Datorren partidu Retuertoren kontra jokatuko dau martiaren 3an Urbietan 18:00etan.

LemoaHarrobi eta Arratia B taldeak galdu egin dabe jokatutako atzen partidu. Lemoakoak laugarren dagoz sailkapenean eta Igorrekoak zazpigarren. Datorren partidu Aceroren kontra jokatuko dau LemoaHarrobik hilaren 3an etxean 17:00etan eta Zorrontzakoren kontra etxetik kanpo Arratia Bk 17:30ean.

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendiolueta, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 839 / fax: 609 290 717

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoa ebaigiteko
dogu Bizarra egin eta buzkunduzen dogu
Tel: 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Kili-Kili
Ampo eta Puzifikatzaile
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

ZURE ZERBITZURA
✓ Avia guztira 176 gasolindegil
✓ Avia Adenor 35 gasolindegil
ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA
✓ Operazio-Zentroa
Bilboko Portu Autonomoan

MENDIA

Bilbao Mendi Film Festival-eko pelikulak Igorreko Kultur Etxean

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, martiaren 9an eta 16an, igaz Bilbao Mendi Film Festivalen saritutako hainbat pelikula ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan, iluntzeko 20:00etan.

Erredakzioa

Lehenengo saioan, hilaren 9an, *Aurrera* eta *Dirtbag: The Legend of Fred Beckey* izango dira pelikulok. Hurrengo saioan barriz, *Mama*, *Song for the Nomad*, *The Frozen Road* eta *Safety Third*.

Bilbao Mendi Film Festival-eko Sari Nagusia eta Ikuslegoaren Saria

Bilbao Mendi Film Festival-en sari bi jaso ebazan Dave O'Leske-k zuzendutako *Dirtbag: The Legend of Fred Beckey* pelikuleak, Sari Nagusia eta Ikuslegoaren Saria, hain zuzen be. Filmak ordubete eta 36 minutu irauten dau eta Fred Beckey eskalatazailerak estadubatuarraren bizitza kontetan da bertan. Mendirako eta eskaladarako grinak bultzatuta, bizimodu bakartia izan eban Beckeyk. 2017an hil zan 94 urtegeaz eta bera-ri egindako tributoa da filma.

Aurretik, Mikel Peñak zuzendutako *Aurrera* zazpi minutuko film laburra ikusteko aukerea egongo da. Filmak Irene 68 urteko mendi korrikalaria aurkezten deusku. Mendi korrikalaria da Irene eta oin dala 40 urte hasi zan mendian galapan, mendi lasterketak ez ziranean oso ezagunak. Indarra daukan bitartean, mendian galapan jarraituko daua dino.

Lau film labur hurrengo barriz

Hilaren 16an barriz, lau film ikusteko aukerea egongo da Lasarte Aretoan. Saioa, Epaimahaiaren Saria irabazi eban *Mama* filmagaz

Ondoren, *Song for the Nomad* Ben Sturgulewskik zuzendutako 6 minutuko filmaren txandea izango da. Biskek-eko (Kirgistan) kontzertu areto baten pianoaren musikeak TianShan mendiak ekarten ditu gogora. Hauxe da, nomadaren musikea, ibiltariaren kantua.

Hirugarren filmak, Ben Pagek zuzendutako *The Frozen Road*-ek, Zuzendaria Onenari Saria jaso eban Bilboko jaialdian. Kanadako Artikotik neguan, bizikletaz egindako zeharkaldia kontetan da 24 minutuko film honetan.

Eskaladako Pelikularik Onenari Saria jaso eban *Safety Third*-ek zarratuko dau saioa. Cesar Wright eta Taylor Keating dira zuzendariak eta pelikuleak 28 minutu irauten ditu. Filmak Brad Gobright eskalatazailerak emoten dau ezetutera. Lanbidez zerbitzaria, eskalatazailerak onenen eta ausartenetakoan artean dago Gobright, nahiko ezezaguna izan arren.

hasiko da. Wojtek Kovakiewicz-en filmak Kinga Opciepka-Grzegulska eskalatazailerak poloniarren bizitza kontetan dau 44 minututan. Opciepka-Grzegulska, atzen 20 urteotako Poloniako kirol eskalatazailerak inportanteenetakoa da.

mendi tour
Lo mejor del Bilbao Mendi Film Festivalako onena

MENDI AMESGARRIAK IGORRE


<p>9 Ostirak 20:00</p> <p>Aurrera 7' VO - en SUBT - es</p> <p>Dirtbag: The Legend of Fred Beckey BMFF2017 Sari Nagusia Orañ Premio BMFF2017 BMFF2017 Auzitegiaren Saria Premio del Público BMFF 2017 96' VO - en SUBT - es/ku</p>	<p>16 Ostirak 20:00</p> <p>Mama BMFF2017 Epaimahaiaren Saria Premio del Jurado BMFF 2017 44' VO - pol SUBT - es</p> <p>Song for the Nomad 6'</p> <p>The Frozen Road BMFF2017 Zuzendari onena Major Director BMFF 2017 24' VO - en SUBT - es/ku</p> <p>Safety Third BMFF 2017 Eskalada Film Onena Major película de Escalada BMFF 2017 28' VO - en SUBT - es/ku</p>
--	---

IGORREKO KULTURETXEA - LASARTE ARETOA - ELEXALDE, 8 SARRERAK DOAN - ENTRADA GRATUITA

www.mendifilmfestival.com

MENDIA

Tontorra egiteko saiakerea bertan behera itxi behar izan dau Txikonek



Alex Txikon.

Argazkia: @AlexTxikon.

Erredakzioa

Zezeilaren 24an Alex Txikon Everest-aren (8.848 m.) tontorra egiteko saiakerea egiteko auzi baina 3. kanpalekutik 4.era joianean, eguraldiak okerrera egin eban eta asmao bertan behera itxi behar izan eban. Zezeilaren 27an, Txikonen komunikazio taldeak, aurtengo neguko espedizioa amaitutzat emon eban, tontorra egiteko baimenaren epea hurrengo egunean amaituten zalako eta martiaren erdikaldera arte eguraldi txarra emoten dabelako eguraldi iragarpenak.

Bigarren aldia da Everest neguan eta oxigeno artifizial barik igoteko saiakerea egiten daua Txikonek, baina 7.850 m. ingurura egoanean, tontorrera ez egitea ebatzi behar izan eban. Haizeak ezinezkoa egiten eban aurrera egitea eta inportanteena talde osoa minik hartu barik bueltetea lehentasuna zan lemoztarrarentzat. "Batuetan bizitzak ebatzi latzen aurrean kokatzen gaitu,

honek gainera une batetik bestera hartu beharrekoak, baina gerora geure eta talde guztiaren bizitzan zehar eskertuko doguzanak. Ebatzi gogorra izan da, baina eguraldiaren iragarpenak erabateko ezustea emon deusku eta gailurrean arrisku handian jartzen ginduan 100 km/orduko haize bortitzek astintzen eban. Lan nekeza izan da, baina zorionez taldeko kideren batek be ez dau konjelazinorik, eta alkarregaz gagoz danok Behe Kanpalekuan" azaldu eban Txikonek bere Facebook-ean.

Holan, zezeilaren 28an, Katmandura jeistekoa zan Txikon. Izan be, egun horretan amaitzen jakon tontorrera egiteko baimenaren epea eta "kontuan izanda barrizatzeak ekarriko leuken gastua eta martiaren erdikaldera arte ez dala aurreikusten eguraldi onik, Txikonen taldeak amaitutzat emoten dau 2018ko Everest-rako neguko espedizioa" azaldu eban Nepaletik Txikonen komunikazio taldeak.

Orabaiak Harri lasterketakoak

Gure

ikasleak

Euskalduna kalidazeko herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urteko 18a


ANTZERKIA

Tomaxen abenturak taldearen
10 urte ikuskizuna Igorren

Erredakzioa

Martiaren 3an, arrastiko seiretan, Tomaxen abenturak taldeak 10 urte ikuskizuna eskeiniko dau Lasarte Aretan. Lau urtetik aurrerako umeentzat da egokia antzezlan hau.

Ikuskizunak urtebetetze festa antzetzuko dau. Sorpresak eta mozorroak egongo dira, baita "txutxe-tarta" bat be. Umeak kantetako, jantzan egiteko eta olgetako aukera izango dabe, eta magia ez da faltauko.



BERTSOLARITZEA

Arratiako taldea Bertsolari
Gazteen BBK Sariketatik kanpo

Illart Gumuzio

Igorreko Arratia Institutuan hasi zan zezeilaren 27an, XXVI. Bertsolari Gazteen BBK Sariketea. Arratiarrak Durangaldeko taldea euki eben aurkari eta bigarren talde honek lortu eban finalurrekoetarako txartela. Arratiak 319 puntu lortu ebazan eta Durangaldeak 411. Hamazortzi urte arteko kategorian, Ekhi Burgoa, Oier Mendiolagoitia eta Maria Atutxa izan ziran Arratiako bertsolariak. Hemeretzi

eta hogeta lau urte bitarteko kategorian oster, Aritza Orue, Amaier Atxa eta Maddi Zabalo. Ainhoa Urienek gidatutako saioan, Beñat Romero, Juanjo Respaldiza eta Miriam Juaristi egon ziran epaimahian eta lone Narbaiza idazkari lanetan. Sariketa honetan, saioak sailkapen-izaerakoak dira. Beraz, Arratiako taldea, galtzailea izan zana, kanpoan geratu da.

Finala, martiaren 22an izango da, Bilboko BBK Salan, arrastiko 19:00etan.



ANTZERKIA

Areatzako I. Umomezko Antzerki
Erakustaldiaren bigarren saioa 10ean

Erredakzioa

AKKBk antolatzen dauan Areatzako I. Umomezko Antzerki Erakustaldiaren bigarren antzezlan Nomofobikak taldearen Sarean kateatuak izeneko, martiaren 10ean taularatuko dabe iluntzeko 20:00etan udaletzeko Areta Nagusian. Antzezlan honen bitartez, nomofobia, hau da, eskuko telefono barik urteko bildurra gai hartuta, gure gizartearen gainean umomez hausnarketea egiteko aukera ekarriko dau taldeak Areatzara. Olatz Beobidek, Belen Cruzek eta Amaia Lizarraldek osotuten dabe Nomofobikak taldea. Sarean kateatuak-ek 2016ko Donostiako Poltsiko Antzerki Sorkuntzako lehen saria jaso eban.

Antzezlan honetan, hiru andrak

ikusleakaz batera terapia bateri egingo deusie aurre. Hasteko alkarregaz test bat egingo dabe mendekotasuna zenbatekoa dan neurtzeko, eta ondoren gizartean hain hedatuta dagoan gaitz hau, kasu desbardin ugaritan

ikusteko aukera izango da: ofizio desbardinak langileak, umeak, nerabeak, adineko andrak... Batzuetan sketch modura eta beste batzuetan bakarriketa lez, euren bizipenak aurkeztuko dabez, beti umorea erabilita.



Nomofobikak taldeko kideak.

IKASTAROA

Maitasun erromantikoa vs
maitasun askea ikastaroa
Jabekuntza Eskoleak antolatuta

Erredakzioa

Ikastaroa martiaren 9 eta 10ean izango da, Areatzako Udal Aretan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak eta Areatzako Udalak antolatuta. Barikuan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara egingo da ikastaroa.

Ikastaroa andren identitatea lan ildo barruan dago eta dobakoa da. Josebe Iturriozek eroango dau aurrera euskeraz izango dan ikastaro hau. Iturrioz Filosofian lizentziaduna da, Medeak taldeko aktibista, Faktoria Lilakoa eta bardintasunerako teknikaria izandakoa. Ikastaro honetan maitasun erromantikoaren mitoak aztertuko dira; maitasuna desmitifikatu gura da, andren eta gi-

zonen arteko desbardinatasunari egingo deusian ekarpena gaintzeko.

Izena martiaren 2ra arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean, 94 631 17 17 telefonoan edota www.arratia.net/eu-ES/Zerbitzuak/Berdintasuna webgunean. Era berean, Arratiako edozein Udaletan be emon daiteke izena.



ERAKUSKETEAK

Rocio Salazarren
biñetak Igorreko
Kultur Etxean

Erredakzioa

Martiaren 11ra arte, andrazkoai ezarritako edertasun ereduaren gainean hausnarketea dago ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketan Aretan. *Eta ez banaiz berriz depilatzen, zer?* titulupean, Rocio Salazar Sevillako ilustratzailearen biñetak batzean dira bertan.

Salazar ilustratzaile ezaguna da *Eta ez banaiz berriz depilatzen, zer?* biñeta bildumagaitik eta horreez egindako hainbat erakusketagaitik. Gainera, *Mentiras para ser una mujer de verdad* liburuen egilea be bada. Liburua Erakusketan Aretan aurkeztuko dau martiaren 7an, 19:00etan.

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzari elkagaiak
esteziana

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

Olaetxe

Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ugatxa
taberna

Ugarana kalea, 8
48141 Dima
T. 946 129 460

www.izkaifisios.com

Arreta gutxiarik
- Laputa pilonokaltasun
- Lagopodia
- Fisioterapia
- Pukuntzarikotasun
- Jarra arazak
- eta abar gehiago

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPERAK

Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 - 505 554 018

izkaifisios

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 55 08
igorre@izkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKA
Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakoo@izkaifisios.com

ZINEA

Zinegoak jaialdiko bost film labor Igorren

Erredakzioa

Zinegoak 2018 Bilboko gaylesbi-trans zine jaialdian erakutsitako bost film labor ikusgai egongo dira Igorreko Lasarte Aretoran martiaren 15ean, arrastiko 20:00etan. Euskal Begiradak saileko film bi, *Zarpazo (Zartakoa)* eta *Euritan* eta Andren begiradak saileko beste hiru, *Happy (Zoriontsu)*, *Marguerite* eta *Szep Alak (Itxura ederra)* emongo ditue Igorren.

Bost film horreetako bat euskeraz eginda dago, *Euritan*, hain zuzen be. Irati Gorostidi eta Arantza Santesteban zuzendarien, Itxaro Bordak 1985ean idatzitako *Klara eta biok* narrazioaren berrikusketea da.

Euskal begiradea ekarten dauan beste filma Nerea Castro leiozarrak zuzendutako *Zarpazo (Zartakoa)* 14 minutukoa da. Bertan, Mar eta Xara protagonistak mendiko paraje baten galduko dira, klandestinidaderako saltoa emoteko prest.

Australia, Kanada eta Hungaria

Andren begiradak Australia, Kanada eta Hungariatik jatorkez. Lara Dudgeon zuzendari australiarraren *Happy* 12 minutuko filma ingelesez euskerazko azpitu-luakaz ikusi ahal izango da. Bere egunean, beste andra bategaz hitzordu bat izateko asmoagaz



Kartela.

app bat deskargetan dauan gazte baten istorioa kontetan dau.

Kanadako Marianne Farleyk zuzendutako *Marguerite* filman, edadeko andra batek bere erizainagaz sortutako adiskidetasunaren ondorioz, aitortu bako desirak adierazoko ditu. Filmak 19 minutu irauten ditu eta frantsesez ikusi ahal izango da euskerazko azpitu-luakaz.

Hungariatik jatorku Hajni Kis-en *Szep Alak (Itxura ederra)* filma. Hau be bersino orijinalen ikusi ahal izango da; hau da, hungarieraz euskerazko azpitu-luakaz. Bertan, institutua garbitzen dauan andra bat bertako ikasle bategaz maiteminduko da. Hamasei minutu dirau film honek.

JAIALDIA

Doinu jamaikarrak Lemoako Karabien

Erredakzioa


Run Together Lemoako aldizkariak 5 zenbaki atera ditu 2011n sortu zanetik. Fanzineak, beste batzuen artean, doinu jamaikarrak jorratzen ditu eta Run to Fest jaialdiak, Jamaikako doinuak gozatzeko aukerea ekarriko dau Lemoara. Bertan, Skabidean taldeak diskoa eta Mango Wood-ek single-a aurkeztuko dabe. Mad Muasel-ek osotuko dau martiaren 2ko gaueko kartela.

Madrieko Mango Wood taldea izango da lehena eta Rock Steady eta Early Reggae estiloak jorratuko ditue, 60. hamarkadako Maytones, Kingstonians eta Ethiopians taldeen moduko melodia bokalak plazaratuz. Horreek, "sekulako jireta dabilz egiten leku askotako eszenalekuetan, baina Arratian geldiune bat egingo dabe Bordelerako bidean" azaldu deutso BEGURI Pablo Rodriguez Run Together fanzinearen zuzendariak.

Ondoren, Skabidean, Iruñeako taldeak, Jamaika ugarteko Ska eritmo dantzakorrak joz, hurre-ratzen diranai garriak mobidu arazoko deutseez. *Bideak darrai* izeneko disko barriaren aurkezpena egingo dabe Lemoan.

Azken kontzertuan, Mad Muasel, Bilboko Dancehall abeslari famatua izango da. Mad Muasel-ek Woman Powah proiektuan parte hartzean dau. Karabie Gaztetxean, Pantx Official Selectors izango dau musikea ipinten biniloakaz, eta berak bere abestiak kantatu ditu gainetik.

Run to Fest jaialdiaren laugarren edizioa izango da Karabie Gaztetxean martiaren 2an, gaueko hamarretatik aurrera, Run Together fanzinearen jaietan.



DUNBA

Zulaibar Arratiako Lanbide Heziketa Ikastegia Erasmus+ europar proiektuetan murgilduta

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Aurten be Zulaibarreko ikasle eta irakasleak Erasmus+ proiektuetan parte hartuko dogu. Ikasleai jagokonez Elektrizitate eta Mekanizatuko Oinarriko Lanbide Heziketako hiru ikasle eta mendekotasun egoeran dagozan personai arreta egiteko erdi mailako ikasle bi joango dira Erasmusean Zikloko Lanaldi Praktikak egitera.

Irakasleak lau proiektutan parte hartuko dabe:

1.- Zulaibarreko eta Holandako ROC Da Vinciko ikas-

leen arteko lankidetzeara.

HETELeko (Euskadiko gizarte ekimeneko lanbide heziketako 23 ikastetxe biltzean dituan alkartea) ikastetxeetako 11 ikaslek (Zulaibarrekoak barne) Holandako ROC Da Vinci ikastetxeko ikasleak alkarlanean aritzeko aukerea izan dabe ikasturte honetan. Irakasleak prestatu eta ikasleak ebatzi beharko daben erronka hau da: hondakinen (laten, plastikoen...) bolumena murrizteko gailu bat diseinetzea.

2.- HETEL International Delta proiektua.



DELTA Erasmus+ KA2 proiektuak, lanpostuko ikaskuntzaren kalidadea hobetzeko helburua dauka.

Zulaibarreko irakasle batek parte hartuko dau proiektu honetan eta martiaren 18tik 22ra Frankfurtera joango da, bertan Alemaniako Formakuntza Dualaren nondik norakoak aztertzea.

3.- Inclusive VET Project.

Proiektu honetako bazkideak

honako helburu komuna izaten dabe:

Eskolan, lanean eta gizartearen partaidetzan, bardintasuna bermatzea. Hori dala eta, proiektu honetan, zazpi VET erakundeak alkarregaz lan egiten dabe langile sozialakaz eta enpresaburuakaz, hezkuntza-programetan ikuspegi integratuetarako tresnak garatzen.



Proiektu honek Lanbide Heziketako ikastetxeetako profesionalak, enpresaburuak eta langile sozialak behar dituen trebetasunak garatu eta guraso edo zaintzaileen inplikazioa indartu hezkuntza sistemak hobetuteko.

4.- VOLT Belgikako lanbide heziketa zentroa eta Zulaibarren arteko elkarkidetzeara.

Maiatza eta bagilaren bueltan Belgikako Lanbide Heziketa ikastetxe batek eta enpresaren batek kolaborazio akordio batera heltzeako asmotan, Zulaibarreko irakasle bi bertara joango dira, datorren ikasturteko helburuak eta plangintza osatzera.

AGENDEA

MARTIAK 1
IGORRE

10:00etatik 11:00etara, martitzen eta eguenetan Igozibili. Jubiladuen alkarteak antolatuta.

Jaietako Kartel Lehiaketea. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira martiaren 2ra arte.

Hilaren 11ra arte, Rocio Salazarren ilustrazio erakusketea *Eta ez banaiz berriro depilatzen, zer?* Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

16:30ean, Orratzak taldeak antolatuta, mural barria pintatu Igorreko Axular Herriko Tabernan.

20:00etan, zinekluba *Bigamist*.

LEMOA

Haur eta Gazteen XVI. Ipuin Lehiaketea. Udal liburategiak antolatuta, ipuinak martiaren 2ra arte bialdu behar dira.

ZEANURI

Hilaren 12ra arte, Joko-Alaik antolatutako martiaren 17an sagardotegira joateko izena emoteko epea. Igeldo-Orio ibilaldia (9 km.) eta Aiako Satotxa sagardotegia. Gorka 634 430 543.

Kirola egiten dabenezako azterketa medikua egiteko unidade mobikorrean zitea eta dokumentazioa hartu daiteke udaletxean. Azterketa medikuak 21, 22, 23, 26 eta 27an.

ZEBERIO

Udalak apirilaren 16tik 24ra antolatu dituan lehenengo mailako informatika ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago.

MARTIAK 2

ARTEA

Hilaren 11ra arte, *Emakumea eta euskal pilota* erakusketea Kultur Etxean.

21:00etan, bertso-afaria Arkaitz Estiballes eta Fredi Paiagaz eta Tattoo Artean ekimenaren aurkezpena Kultur Etxean.

IGORRE

19:00etan, Igorren Ebatzik antolatutako tonbolea Rugby tabernearen ondoan.

19:00etan, Arratiako eleizak antolatuta, Lander Intxaustiren berbaldia *Laudato*

si: zelako mundua ibi gura deutsegu gure ondorengoei? Kultur Etxean.

18:00etan, Orratzak talde feministaren aurkezpena Axular Herriko Tabernan.

21:00etan, Vulk taldearen kontzertua Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

22:00etan, Run to Fest 4. edizioa. Skabidean, Mango Wood eta Mad Muasel Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

19:00etan, Josu Ormaetxea, Martxoak 3 alkarteko kidea, 1976ko martiaren 3ko istiluetan zauritu eben eta bere testigantzea emongo dau Eguzkiola Kultur Elkarteko lokalean.

MARTIAK 3

AREATZA

08:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatuta, Aiako Harria eta sagardotegira urtekerea. Ibilbide bi aukeran: erreza eta tekniko. Eleizako portikuan.

ARTEA

AKKT-k antolatuta, eskiatzera urtekerea.

DIMA

11:00etatik 13:00etara, Abizariak antolatuta euskereari buruzko jardunaldia eskolan.

IGORRE

18:00etan, Tomaxen abenturak taldearen *10 urte* umeentzako ikuskizuna Kultur Etxean.

22:00etan, zinea *Los archivos del pentagono* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

10:00etan, Koldo Belaskoren berbaldia Asiako liztorraren gainean. Gaztelekuan.

Rafa Rueda Igorreko Kultur Etxean

Hiri kristalezkoa diskoa aurkeztuko dau musikari mungiarrek martiaren 2an, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean, zuzenean diskoko kantuak eskeiniz.

Disko honetan aurrekoenetan baino leku gehiago emon deutse Ruedak tekladuai, 1980 hamarkadako soinura hurreratzuz, baina betiko pop dotorea eginda. Hitzakaz, Ruedak, Harkaitz Cano, Leire Bilbao, Go-tzon Barandiaran, Unai Iturriaga, Miren Amuriza eta Arkaitz Estiballesen laguntza izan dau. Hitz guztiak uriaren kontzeptuari lotuta dagoz eta oso ondo buztartzen dira musikearen ikutu urbanoagaz.

Hiri kristalezkoa mugarritzat jotzen da artistaren ibilbidean.

MARTIAK 4

BEDIA

10:00etan, Arratiako Andren VIII. Mendi Martxea, plazan. Ostean, kopaua.

Eskiatzera urtekerea Alto Campoo-ra.

IGORRE

17:00etan, zinea *Jumanji bienvenidos a la jungla*; 19:30ean, *Los archivos del pentagono* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, urtekerea domekero bizikletan Arlonagusia kaleko saskibaloio kantxatik. Txirindulari Elkartek antolatuta.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Maudie, el color de la vida* Eskola Zaharrea.

MARTIAK 6

ARANTZAZU

19:00etan, Irantzu Varelaren berbaldia *El feminismo esta de moda*. Kultur Gunean.

IGORRE

11:00etan, hormairudia pintatu futbol zelaian.

18:00etan, 3-5 urte eta 18:45ean, 6-10 urte bitartekoentzako *Panpin bat Aitorrentzat* ipuin kontaketea Maite Francoren eskutik. Kultur Etxean.

UBIDE

Mankomunidadeko kamioia joango da baztertutako gauzak jasotera. Zeozer atera gura dauanak bere datuak emon behar ditu udaletxean hilaren 5era orduko.

MARTIAK 7

IGORRE

19:00etan, *Mentiras para ser una mujer*

de verdad Rocio Salazarren liburuaren aurkezpena. Kultur Etxean.

MARTIAK 8

IGORRE

12:00etan, Arratiako talde feministak eta andra taldeak deituta, konzentrazio zaratsua Igorreko Kultur Etxe ondoan.

UBIDE

Podologoak joango da.

ZEBERIO

11:00etan, elkarretaratzea udaletxe aurrean.

MARTIAK 9

ARTEA

21:30ean, Garoa taldearen kontzertua Herriko Bentan.

AREATZA

17:00etatik 20:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Maitasun erromantikoa vs maitasun askea* ikastaroa Josebe Iturrioren eskutik.

IGORRE

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendi Amesgarriak. Bilbao Mendi Film Festival-eko, *Aurrera* eta *Dirtbag: The Legend of Fred Beckey* pelikulak Lasarte Aretoan.

LEMOA

20:00etan, bertso-saio musikatu. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Oihana Iguaran eta Alaia Martin. Musikariak: Isaak Arruti eta Gari Otamendi. Gaztetxean. Ondoren kopaua.

ZEANURI

19:00etan, Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratiak antolatutako kafe-tertulia. Ana Elena Altuna, Juan Carlos Gonzalez, Juan Hernandez, Ignacio Robles, Jose Alberto Vicente eta Mikel Zuloaga. Eguzkiolako lokalean.

ZEBERIO

20:00etan, Marta Barainka Clown feministaren *La Modern* ikuskizuna udaletxean.

MARTIAK 10

AREATZA

Parke txak antolatuta, mendi urtekerea, Aldabideko ur jauzi inguruetatik bira.

10:00etatik 13:00etara, Arratiako Andren

Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Maitasun erromantikoa vs maitasun askea* ikastaroa Josebe Iturrioren eskutik.

20:00etan, Nomofobikak taldearen *Sarean kateatuak* antzezlan udaletxeko Areto Nagusian.

DIMA

19:00etan, Lakrikun taldearen *Prest gaude* antzezlan Abaroa aretoan; 21:00etan, andren afora eta ostean musika animazioa.

IGORRE

22:00etan, zinea *La libreria* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

19:30ean, Arantza eta Pantxoren kontzertua jubiladuen tabernan.

MARTIAK 11

ARTEA

12:15ean, pala partidua Arantzazu vs Zaratamo. Ondoren esku pelota partidua Olatz Arrizabalaga-Amaia Alday vs Jone Goiri-Leire Etxaniz.

IGORRE

17:00etan, zinea *Harpetarra*; 19:30ean, *La libreria* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, urtekerea domekero bizikletan Arlonagusia kaleko saskibaloio kantxatik. Txirindulari Elkartek antolatuta.

ZEANURI

18:00etan, Mazala alkartearen eskutik *Akordetan naz, ahiztu ez iteko* dokumentalaren aurkezpena Kultur Etxean.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldearen urtekerea, GR123 Lekeiteio-Ondarroa.

MARTIAK 12

IGORRE

Apirilaren 13ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen *Mendirik Mendi* argazki erakusketea. Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

MARTIAK 15

IGORRE

20:00etan, Zinegoak 2018. Bilboko gaylesbitrans zine jaialdiko 5 film labur. *Zarpazo (Zartakoa)*, *Euritan*, *Happy (Zoriontsu)*, *Marguerite* eta *Szep Alak (Itxura ederra)* Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasautu, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garaje aparkautakoa eta atoi bolegaz. Telefonoa 688 602 516.

AUTOA SALGAI

Nissan Terrano II 2.7. Motorra egoera onean, remolkearentzako bolegaz, 3 ate eta 232.000 kilometro. 1999 urtekoa. Telefonoa 628 041 526.

BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

DANERIK

LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

ETXEA ALOKAIRUAN

Igorren, 2. solairuan. Argitsua eta epela. Beheko Plazatik hur. Interesdunak deitu 644 955 345 telefonora.

ETXEA ALOKAIRUAN

Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz eta gasagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

JATETXEA ALOKAIRUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimentu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Rafa Ruedaren kontzerturako.

Aitziber Milikua (Areatza)
Aitor Erdozia (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tomaxen abenturak-en 10 urte ikuskizunerako.

Miren Madariaga (Areatza)
Xabier Arauzo (Igorre)




3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Mizkin. 2.- Sasitza. 3.- Bokala.
Haga, habe. Konsonantea. 4.- Nori atzikia. Su egin. 5.- Idazketa.
6.- Estalgia. Platinoa. 7.- Uranioa.
Gipuzkoako udalerria. Azken bokala.
8.- Batu. 9.- Prestau.

GOITIK BEHERA

1.- Mila erromatar. Jardun.
Konsonantea. 2.- Osmioa. Kretako mendia. Barioa. 3.- Birritan, bor-bor.
Dotore. 4.- Eskeintzaile. 5.- Errez.
Berba-alkarketan, adar. 6.- Iridioa.
Musika mota bat. Ospa, alde.
7.- Nitrogenoa. Ipuin. Bokala.



Topau neguko eguraldiagaz lotuta dagozan zazpi fenomenoren izenak.

Z	O	L	I	A	U	A	S	L	O
U	E	A	R	K	A	N	E	I	D
E	N	D	E	R	T	I	M	P	A
R	B	I	U	A	A	G	I	S	E
Z	A	R	G	R	E	L	N	U	H
E	T	X	E	T	R	O	E	B	A
D	A	T	I	U	K	A	T	E	N
J	E	L	E	K	A	M	A	A	R
U	E	K	A	T	X	A	Z	I	O
K	R	A	K	A	O	T	I	Z	A
L	O	K	E	R	O	G	A	M	E
U	F	A	B	H	O	K	E	Z	A
T	A	R	R	O	G	N	I	X	T
D	E	M	E	P	A	S	I	K	A
O	L	A	R	E	P	Z	A	R	E

AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozulu@arratia.net

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

